

Lerro hauetatik Trintxerpe KE-k argitu nahi du, behin betiko, Trintxer izeneko futbol-zelaiaren ordutegiaren inguruan sortu den eztabaida eta arazoa.

1. Lehenik eta behin, TKE-k adierazi nahi du ez duela ezertxo ere inor ez eta inongo kirol talderen aurka ere; aitzitik, gure jokalaria, prestatzaile, laguntzaile eta bere konfiantza osoa gudan jarri duten familien interesak defendatu besterik ez dugu egiten.
2. Elkarte honek ulertzen du Udalak ez gaituela ondo tratatu, umildu eta mespretxatu ere egin gaituela, behar izan dugunean ere babesik eman ez digula.
3. TKE-k soilik eskatzen du Pasaiaiko Udalarekin hitzartutako akordioa, zelaiaren kudeaketarako, betetzea. Aipatu hitzarmenak, Udaleko Idazkaritzarekin baieztaturik, Trintxerreko instalazioen kudeatzaileak garen heinean, aitortzen digu zelaiaren ordutegiak antolatzeke ahalmena; jakina, beste erabiltzaileen jarduera eragotzi gabe eta neurri bereko erabilera bermatuz. Edozeinek egiaztatu dezake kategoria bereko erabiltzaile guztiak ordutegi berean eta iraupen berdinarekin entrenatzen garela.

Alegia, eskatzen dugun gauza bakarra da Trintxer zelaiaren kudeaketa egin ahal izatea, Pasaia KE-k, udal- kudeaketa duen beste zelaian (Don Bosco, orain Jesus Ma Zamora zelaia) egiten duen bezala, edota gainerako "kudeatzaileek" Gipuzkoako zelai guztietan bezala.

4. Pasaiaiko Udalak guztioi helarazitako azaroaren 5ko ebazpenak dio, hile honen 19tik aurrera, ordutegi berriak bete behar ditugula. Sanpedrotarra FE-k ez du errespetatzen aipatu ebazpena eta egoera behartu eta bihurritu du gure taldeen lan-saioak galaraziz, tentsioa sortuz eta irainen artean, udaltzaingoaren aurrean.
5. Behin ikusita egoera honen aurrean Pasaiaiko Udalak ez duela ezer egiten, Trintxerpe KE-k salatu beharrean dago sentitzen dugun inpotentzia eta babesik eza; aldi berean zeharo kezkatuta gaude ikustean mehatxuak, indarraren arrazoia eta gezurra garaile ateratzen direla argudioak, hitzarmenak eta arrazoiaren aurrean.

Zer gerta liteke Trintxerpe KE-k modu berean jokatuko balu? Zeinena izango litzateke balizko liskarrak eta oldartzeen erantzukizuna?

Trintxerpen, zerbait larriagoa gertatu izan ez bada, etengabeko probokazioaren aurrean Trintxerpe KE-K erakutsi duen pazientzia eta arduragatik izan dela azpimarratu nahi dugu; izan ere, kirol jardueratik haratago, guk uste dugu erantzukizun bat badugula gure haurrak eta familien aurrean, errespetu eta hezibide onen balioak sustatu eta gorde ere egin behar ditugula, Udalak aintzat hartu ez badu ere.

6. Tamalez, TKE-k jakinarazi behar du baldintza hauetan Trintxer zelaia ezin duela kudeatzen jarraitu. Ez harik eta Pasaiaiko Udalak sinatutako hitzarmena, berak ezarritako ordutegien banaketa, eta berak ere hartutako ebazpenak errespetatu eta bermatu arte.
7. Bukatzeko, Trintxerpe KE-k, 2018.eko azaroak 27an, idazki baten bitartez, futbol-zelaiaren kudeaketa eramateari utzi diola jakinarazi dio Pasaiaiko Udalari eta instalazioen giltzak ere eman zaizkio.

WWW.CDTRINTXERPE.ES

Palacio Andonaegui. C/San Sebastián s/n. 20110 TRINTXERPE

cdtrintxerpe@gmail.com

Tfno. 943391087